



Atzoko lasterketako onenak. Lehenengo hiru azkarrenak, ekipokakoa, tarteko helmugak eta mendiko sailkapena.

Xabat Otxotorena azkarrena San Juan Klasikan

■ Otxotorenak 'Cuesta de la muerte'n jo zuen azken erasoa eta hor lortutako metroak ezin izan zizkieten kendu Sorgintxulotik helmugara bidean ■ Bigarren Ivan Gilmartin izan zen eta hirugarren Pablo Vargas.

XABAT Otxotorena hernaniarrak irabazi zuen 57garren San Juan Klasika, Kaiku Sari Nagusia, eta demostratu egin zuen zergatik zen atzoko lasterketa irabazteko faborito. Bigarren Ivan Gilmartin izan zen eta hirugarren Pablo Vargas.

Gora aldegin eta behera eutsi Gorputzaldi onean dagoela erakutsi zuen atzo Serbitzu taldeko Otxotorena hernaniarrak eta lasterketa hasiera hasieratik sartu zen ihesaldietan. Kolpe sendoa Xoxokan gora jo zuen eta aurrean zijo-

azten 5 txirrindulariak harrapatu zituen. Hortik aurrera 6 txirrindulariek eman zituzten erreleboak eta mantendu egin zuten 20-25 segunduko aldea. Otxotorenak Kronikari adierazi zionez "Cuesta de la Muerten gora aldegin ezker eta Galarretan metro batzuren aldearekin pasa, banekien oso zaila zela hortik metara harrapatzea". Helmugan 15 metroko aldearekin sartu zen Otxotorena, jendearen txalo artean eta besoak goian zituela.



Otxotorena Hernaniko helmugan.

Beste sailkapenak 100dik gora txirrindulari atera ziren atzoko lasterketan, eta horrela gelditu ziren gainerako sariak. Mendiko sailkapenean onena Xabat Otxotorena izan zen; tarteko helmugetan Jose Redondo; eta taldekako sailkapenean onena Wurth taldea.

Urterik oparoena Afizionatu mailan bere denboraldi onena egiten ari da aurten Otxotorena eta bere hitzetan "iaz ondo ibili nintzen eta hobera nijoala antzematen det". □

■ IGERIKETA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Hernanik 15 domina lortu ditu asteburuan

■ Urrezko 3 domina, 4 zilar eta brontzezko 8 lortu ditu Hernanik.

GIPUZKOAKO txapelketa jokatu dute asteburu honetan Hernaniko igerilariak. Infantil eta kadete mailako probak ziren eta hernaniarrek 15 domina lortu dituzte: urrezko 3, zilarrezko 4 eta brontzezko 8. Hernaniko sarituak izan dira: Aizpurua (3 domina), Gonzalez (3), Diez, Aldabe (2), Altuna (2). Errelebotan 3 sari lortu ditu Hernaniko taldeak. Gipuzkoa guztiko 20 talde eta 125 igerilari izan dira asteburuan Hernanin. Taldeka onena Bidasoa taldea izan da eta Hernani ere maila oso onean aritu da. □



Hernaniko igerilariak atzo kiroldegian.

Preso eta errefuxiatuei omenaldia eta Errepresaliatuen Eguna, San Joanetan

AMNISTIAREN Aldeko Batzordeak antolatuta, preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo zaie ekainaren 24an Gudarien plazan. Ekitaldia 20:00etan hasiko da. Bestalde, eta hau ere Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, bazkaria egingo da ekainaren 26an Plaza Berrian. Bazkal ondoren musikari batek lagunduta euskal kantu zaharrak abestuko dituzte. Errepresaliatuen Eguna deitu diote antolatzaileek egun honi eta bazkarirako txartelak salgai daude: Garin, Oindi eta Rioja tabernetan. □

Garayar autobusak ordutegi berezia izango du San Joanetan

GARAYAR autobusak ordutegi bereziak jarri ditu San Joanetarako (23an hasi eta 26ra). Gau guztian izango dira orduro autobusak Donostiara eta Urnietara. Urnietatik Donostiara dijoana 23:00-etatik 06:00ak arte ibiliko da orduro. Donostiatik Urnietara dijoana berriz 23:30etatik 06:30ak arte orduro. Prezioa: 1,20euro. □

■ ATLETISMOA

Eider Aldabe Espainiako txapelketan izango da

EIDER Aldabe hernaniarrak Espainiako kadete eta infantil mailako txapelketetan parte hartuko du 1000 metrotan. Aldabe Euskadiko infantil mailako txapeladuna da eta kadeteetan eskatzen duten minima ere lortua dauka aurten.

Bestalde, ekainaren 16an jokatuko zen Euskadiko Atletismo Txapelketa eta hernaniarrek lan polita egin zuten. Bertan izan ziren: Martin, Erroizenea, Muñoz, Aldabe eta Lizeaga. Espainiakora Aldabe bakarrik pasako bada ere, besteak ere dezima batzuegatik gelditu dira kanpora. □

GARAYAR AUTOBUSAK

Autobus zerbitzua
Linea erregularrak



Zerbitzu diskrezionalak
(ESKOLARRAK)

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 Hernani (Gipuzkoa)



HARATEGIA - URDAITEGIA

Larramendi 17 - 943 55 03 32
20120- HERNANI

Hernaniar guztioi
San Joan jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu



ESKERIKASKO GUGAN KONFIDANTZA
JARTZEN DUZUEN GUZTIOI

GAUR BETE DITUGU 38 URTE ZURI HARAGIRIK ONENA ESKAINTZEN.



Preludio txikia ondo joan zen, nahiz eta euriagatik suspenditzeko bildurrez ibili.

Preludio nagusia suspenditu egin zen

■ Arratsaldeko euri zaparradek ez zuten utzi Preludio nagusia egiten ■ Preludio txikia ondo atera zen ■ Euriak beste bi ekitaldi ere suspenditu arazi zituen.

AURTEN ez da San Joan Preludio nagusirik izango, larunbatean euri zaparradek ez baitzuten eman horretarako aukerarik. Goizean goizetik ikusten zen eguna euritsua zetorrela eta badaezpada, antolatzaileak Gudarrien plazan jarritako aulkiak tapatzen aritu ziren. Arratsaldeko lehen orduetan ateri zen eta Preludio txikia inongo ara-

zorik gabe egin zuten 300 ume inguruk. Iluntze aldera ordea, berriz hasi zuen erauntsia eta antolatzaileek erabaki zuten aurtengoz ekitaldi nagusia bertan behera uztea.

Larunbateko protagonista

Euri jasen ondorioz larunbatean egin beharreko beste bi ekitaldi ere bertan behera gelditu ziren.

Goizean Ehiza Zakur txapelketa zen Xoxokan baina ehiztariek eta zakurrek ez zuten lortzen ehiza hegatzetik inondik ere. Antolatzaileek datorren larunbatera atzeratu zuten ekitaldia.

Bestalde, Kronika Pelota Txapelketako finalak ere larunbatean jokatzeak ziren baina hamabost egun atzeratzea erabaki zuten arduradunek. □

■ PELOTA - GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Hernanik finala jokatuko du Azpeitiaren kontra

■ Larunbatean 0-3 irabazi zien azkoitiarrei oso partidu parekatuak jokatuta ■ Finala igandean da 10:30etan Atano III frontoian ■ Sarrerak salgai, Hernanin, asteazkenetik.

HERNANIK Herri Arteko finala jokatuko du datorren igandean, Azpeitiaren kontra. Final erdietako 6 partiduak irabazi dizkio Hernanik Azkoi-

tiari eta merezita pasa da finalera. Larunbatean partidu ederrak jokatu zituzten Ojuel-Grajal, Aizpitarte-Gorrotxategi eta Erroizenea-San Sebastianek.


Datorren igandean 6 pelotari horiek ordezkatzeko dute Hernani eta finala ikustera joateko sarrerak salgai egongo dira Hernanin asteazkenetik aurrera. □

BERTSOLARITZA - EUSKAL HERRIKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Beñat Gaztelumendi Euskal Herriko txapeldun

■ Hernaniko Bertso Eskolan dabilen añorgatarra izan zen onena Mungian, 14 urtez gorakoetan ■ Hernaniko Bertso Eskolako Huizi eta Azpiroz ere ondo aritu ziren.

BEÑAT Gaztelumendik jantzi du berriz ere Euskal Herriko txapela, 18 urtez azpiko bertsolarietan. Gaztelumendi Añorgakoa da eta Hernaniko Bertso Eskolan dabil aspaldiko urteetan. Añorgatarrak irabazi ditu Euskal Herriko azkeneko hiru txapelketak eta Mungiako finalean aurten ere merezita irabazi du txapela. Gaztelumendiren atzetik Alaia Martin oartzuarra gelditu zen. 14 urtez azpikoetan Maialen Arzallus izan zen onena eta Hernaniko Bertso Eskolako



Beñat Gaztelumendi.

Asier Azpiroz zubietarra lau-garren izan zen. Hernaniko Bertso Eskolan dabilen bestea eta atzo Mungian kantatu zuena Maialen Huizi goizuetarra zen eta honek ere saio ederra egin zuen.

Mungiako frontoia leporaino beteta egon zen atzo eta antolatzaileen hitzetan, maila oso oneko finala entzun zuten Mungiara inguratu zirenek. 14 urtez azpikoetan txapela oso disputatua egon zen eta horrek emozio puntu haundia eman zion finalari. □

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK 2004

Hernaniko EAJ-PNV-k eskerrak eman nahi dizkie ekainaren 13an botoa eman zien herritarrei

HERNANIKO EAJ-PNV taldeak kaleratu duen prentsa oharraren bidez, eskerrak eman nahi dizkie Europako Hauteskundeetan botoa eman zien herritarrei. Alderdiaren hitzetan: “eskerrik asko joan den ekainaren 13an guregan konfidantza adierazi duzun

guztioi”. Oharrak baita ere dio: “bozkatu ez diguzuenoi esan nahi dizuegu inor ez dagoela soberan eta Hernani eta Euskal Herria eraikitzeke zuekin kontatzen dugula”.

Alderdiak San Joan jai zoriontsuak opaz bukatzen du prentsa oharra. □

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA III SAGARDO LEHIAKETA

Altzueta sagardotegia bigarren, III Sagardo Txapelketan

HERNANIKO Altzueta sagardotegiak bigarren postua lortu du Gipuzkoako Diputazioak antolatzen duen urteroko Sagardo Txapelketan. Gipuzkoako 21 sagardotegik hartu dute parte txapelketa honetan eta finalera 6 sagardotegi pasa dira: Hernaniko Altzueta, Adunako Zabala, Usurbilgo Urdaira, Urnietako Elutxeta, Tolosako Isastegi eta Astigarragako Oiarbide. Aukeraketa 10



adituk egin dute eta haien arabera: irabazlea Adunako Zabala sagardotegia izan da eta bigarren Altzueta. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalaria anonimoak: 943 331103
- ▶Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
- ▶Gauetz: Oa
Usurbil. Poligono 1, 1
☎ 943 376076

IRAGARKI MERKEAK

Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Kanping karroa salgai. Karabana bihurtzen da. Aluminiozko panelak. Interesatuak deitu arratsaldeetan: 943 551832

Bizikleta salgai. Errepideko Zeus txirrinda. Egoera onean. Deitu: 943 556338

Bi emakume behar dira etxeko lanak egin eta pertsona helduak zaintzeko. Bat asteleheneetik ostiralera eta bestea asteburuan. Deitu: 655 741524

LOREZAINAK, garbiketako pertsonala, operarioak, zerbitzu ezberdinak, Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeetako sukalde laguntzaileak. Laster inkorporazioak Donostia, Bergara eta Hernanin. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

IGELTSEROAK, iturginak, arotzak, peoiak. Plaza fijoak Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzako plaza libreak. Laster inkorporazioak, Zarautz, Hernani, Usurbil, Beasain, Berrobi, Irun, Errenteria, Bergara eta Oñatin. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

EZINDUAK. Plaza fijoak erreserbatuak. Lortu lan postu bat Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Laster inkorporazio berriak. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

TELEFONISTA-REZEPZIONISTA. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta Udaletxetan. Laster inkorporazio berriak. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

TXOFERRA. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta Udaletxetan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

ZAINTZAILEAK. Plaza fijoak haurrak eta 3garren adineko pertsonak zaintzeko, Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

SUHILTZAILEAK. Inkorporazio berriak, parke lokal eta erregionaletan. Gutxigorabeherako soldata: 1.500 e. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

POLIZIA MUNIZIPALA. 43 postu libre Udaletxe ezberdinetan: Hondarrabi, Hernani, Irun, Azpeitia, Azkoitia. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

BASOZAINA. 17 plaza konbokatua. Egin ezazu lan Euskal Herriko parke naturaletan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

HERNANI HIZKUNTZAK (Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK Xaber, Cambridge First azterketa gainditzeagatik eta Zorte on, Irati, Juan, Aitziber, Ion, Amaia, Ion Ander, Arantxa, Ander (First), eta Urko eta Julen (Advanced)

UDAKO IKASTARO ERDI-TRINKOAK - Haur eta helduak
MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Jo: 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1